



Arartekoaren 2020R-2065-17 Ebazpena, 2020ko irailaren 24koa. Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio berrius dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren kontzeptuan zenbateko bat itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpena, eta erabaki dezala zorra konpentsatzeko deskontatutako zenbatekoak itzultzea, prestazioak erreklamatzeko prozedura erreklamazio-ekintzaren preskripzio-epaaren ondoren hasi delako.

Aurrekariak

Pertsona batek kexa bat aurkeztu du Arartekoaren aurrean, Lanbidek sustatutako prestazioen erreklamazio bat dela eta.

Erakunde honek adierazi du 4.946,70€ itzuli behar dituela, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kontzeptu gisa, diru-sarreraren eta ondarearen aldaketak epean ez komunikatzeagatik eta gizarte-, ekonomia-, familia-, lan-egoerari eta abarri buruzko datuak ezkutatzegatik.

Lanbidek 2017ko apirilaren 7an jakinarazi zion prestazioak erreklamatzeko prozedura hasi zela, eta 2017ko ekainaren 5eko ebazpenaren bidez erabaki zuen zenbateko hori itzultzeko betebeharra. Kexagileak berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen, eta bertan alegatu zuen zenbateko hori itzultzeko eskatzen zitzaion aldian, 2011ko uztailetik 2012ko martxora, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta/edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular gisa zituen betebeharrak bete zituela.

Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen, eta ondoren, adierazitako egitatei buruzko informazioa eskatu zion Lanbideri. Horrez gain, alde aurretiko gogoeta batzuk helarazi genizkion. Errepikakorrek ez izatearren, gero aipatuko ditugu. Zehazki, honako kontu hauen inguruko informazioa eskatu zuen:

- a) Betebeharren prestazioak zuzentzen dituen araubide juridikoa kontuan hartu den.
- b) Zergatik ondorioztatu den kexagileak gizarte-, ekonomia-, familia-, lan-egoerari eta abarri buruzko datuak ezkutatu dituela.
- c) Kexagileari behar bezala erantzuteko gauzatu dituzun edo, aurreikuspenei jarraiki, gauzatuko dituzun jardunen gaineko argibideak.





Lanbidek bere zuzendari nagusiaren txostenaren bidez erantzun du, eta aurkeztutako errekurtsioa eta espedienteko dokumentazioa aztertu ondoren, honako hau ondorioztatu du: *“Lanbidek egiaztatu duela (...) andreak azpierreantamenduak eta nominak jaso zituela, eta ez zizkiola behar bezala jakinarazi Lanbideri, nahiz eta haren betebeharra zen. Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 dekretuan, maiatzaren 25ekoan, ezartzen da betebeharrak hori, 12.1.f) artikuluan.”*

Lanbidek gaineratu du maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56. artikulua aplikatu behar dela, eta, beraz, ordaindutako prestazioak itzuli behar direla.

Amaitzeko, adierazi du zor horren berri 2014ko irailean eman zitzaiola interesdunari, eta zorraren preskripzio-denborak eten egin zirela.

Kexagileak 2012ko otsailaren 9ko (2012/23137 erregistro-zenbakia) eta 2013ko otsailaren 15eko (2013/39153 erregistro-zenbakia) alokairu-ordainagiriari Lanbideren bulegoan aurkeztu izanaren egiaztatzea aurkeztu du. Gainera, lan-harremanaren hasiera 2012ko maiatzaren 17an jakinarazi izanaren egiaztatzea (2012/81714 erregistro-zenbakia) eta 2012ko maiatzaren 30eko lan-kontratua (2012/89884 erregistro-zenbakia) aurkeztu ditu.

Azkenik, datu interesgarri gisa, adierazi behar da kexagileak oso-osorik ordaindu duela erreklamaturako zorra.

Gogoetak

- 1.-Espediente honetan, prestazioak erreklamatzeko prozedura bat aztertzen da, zorra sortu zen aldia baino askoz geroago eskatu zena, zehazki, 2017an. Jarduketa horiek Lanbideren hasierako etapan egin ziren; izan ere, atzerapen bat egon zen prestazioak erreklamatzeko legezko prozedurak eskatzeko orduan, eta gaur egun gainditu egin da.
- 2.-Lanbidek emandako erantzunean ez da inolako informaziorik zehaztu, ez eta erantsi ere, prestazioen erreklamazioa ekarri duten gertakariei buruz, ez eta Lanbidek zorraren preskripzioa geldiarazteko bidali duen jakinarazpenari buruz ere. Era berean, ez da aipatzen (ezta ebazpen baten kopia ere) aldi horretan diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea etetea erabaki zenik diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa zituen betebeharrak ez betetzeagatik, edo dagokion diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoaren





ondorioetarako diru-sarrera gisa zenbatu beharko ziren zenbatekoak jaso zituela egiaztatu zuenik.. Ondorioz, ez da egiaztatu ordaindutako prestazioak itzultzea erabaki daitekeenik, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56. artikuluan ezarritakoa betez:

“1.– Aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura baten ondorioz edo beste edozein zirkunstantziagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jaso dela egiaztatzen bada, titularrak jaso behar ez zirela jasotako prestazioak edo prestazioarengatik jaso behar ez zela jasotako zenbatekoa itzuli behar dituela ezarriko du foru-aldundi eskudunak.”

- 3.-Prestazioak erreklamatzeko prozeduraren hasiera lau urte baino gehiago luzatu zen, eta, beraz, erreklamazio-ekintzaren preskripzioa erabakitzeke ezarritako epea gainditu da.

Lanbidek 2017ko apirilaren 7an jakinarazi zuen prestazioak erreklamatzeko prozedura hasi zela; erreklamatzeko diren prestazioak 2011ko uztailetik 2012ko martxora bitarteko aldi ordaindu ziren. Kexagileak hainbat agiri aurkeztu zituen 2012ko otsailean, 2012ko maiatzean eta 2013ko otsailean, alokairu-errentei eta lan-harremanaren hasierari buruz.

Arartekoaren iritziz, preskripzio-eparen zenbaketa (dies a quo) Administrazioak itzultzeko betebeharra eragin duen gertakariaren berri izaten duenetik hasi dela ulertu behar da. Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren (diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzkoa) 58.2 artikuluan honako hau xedatzen da: *“Jaso behar ez zirela jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra preskribatu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eskubideei eta betebeharrei aplikatu beharreko araudiaren arabera. Preskripzio-epea administrazio eskumendunak itzultzebetebeharra sorrarazten duen gertakariaren berri duen egunetik hasiko da zenbatzen edo, halakorik badago, itzultzebazpenaren jakinarazpena gauzatzen den egunetik.”*

Kexagileak, 2012ko otsailean, 2012ko maiatzean eta 2013ko otsailean, alokairu-errentei eta lan-harremanaren hasierari buruzko dokumentazioa aurkeztu zuen; beraz, uler daiteke data horretan jakin zuela administrazio eskudunak itzultzeko betebeharra eragin zuen gertakariaren berri, eta baliteke berrikuspen-prozedura bati ekin izana.





Bestalde, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 44. artikulua honako hau ezartzen du:

“1. Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideak preskribigarriak dira. Preskripzio-epeak zehazteko, bete beharrekoak izango dira eskubide horietako bakoitzari zuzen-zuzenean edo zeharka espezifikoki ezar dakizkiokeen xedapenak.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako xedapen horietakorik ez badago, lau urteren buruan iraugiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta bere erakunde autonomiadunek dauzkaten eskubide hauek:

a) Izaera publikoko eskubideak aitortzeko edo bere alde likidatzeko eskubidea, eskubide hori erabili zitekeen egunetik kontatzen hasita. Aitorpen edo likidazio hori egiteko beharrezkoa baldin bada aipatutako entitateen aurrean formulatutako adierazpena, orduan preskripzio-epea ez da kontatzen hasiko harik eta formulazio hori baldintza guztiak betez egiten den arte.

b) Aitortutako edo likidatutako izaera publikoko kredituak kobratzeko eskubidea, horien jakinarazpena eraginkorra den egunetik kontatuta edo, jakinarazpena nahitaezkoa ez bada, epemugatik kontatuta.

3. Nolanahi ere, eskubide publikoen preskripzio-epeak honako arrazoi hauek direla-eta eten daitezke:

a) Edozein administrazio-ekintza dela-eta: zordunaren ezagutza formalarekin egiten bada ekintza, nahiz eta dagokion jakinarazpena akastuna izan, eta ekintzaren helburua aitortzea, kitatzea edo kobratzea bada, edo aurreko hiru horiekin zerikusia badu.

b) Zordunak ekintzak burutzen dituenean, eta erreklamazioak edo errekurtsioak jartzen dituenean, nahiz eta legez ezarritakoak ez izan edo formulazio aldetik txarto eginda egon. Dena den, batzuek zein besteek zerikusia izan behar dute aurreko epigrafeek aipatzen dituzten eskubideekin; hala ere, bada salbuespen bat, alegia, erreklamazio edo errekurtsioen eskari nagusi eta bakarra izatea preskripzioa ontzat ematea edo aitortzea.

c) Zordunaren edozein jarduketa dela-eta, baldin eta jarduketa horren helburua aitortzea, kitatzea edo kobratzea bada, edo aurreko hiru horiekin zerikusia badu.”

Lau urte baino gehiago igaro dira preskripzio-epea hasi zenetik prestazioak erreklamatzeko prozedura hasi zen egunera arte, 2017ko apirilaren 7ra arte. Beraz, zorra preskribatu egin da, ez baitago jasota epe horretan zuzenbidean baliozkoa den erreklamazio-ekintzarik ebatzi denik.





Lanbidek informazio-eskaerari erantzunez bidalitako txostenean ez da aipatzen etete-ondorioak dituen ebazpenik, salbu eta 2014an jakinarazpen bat bidali bazen. Kexagileak, aldiz, 2012ko otsailean, 2012ko maiatzean eta 2013ko otsailean alokairu-errentei eta lan-harremanaren hasierari buruzko dokumentazioa aurkeztu izanaren egiaztagiriak erantsi dizkio espedienteari. Beraz, Lanbidek data horretatik zuen itzultzeko betebeharra eragin zuten gertaeren berri.

2014. urtean bidali zen jakinarazpena ez zen bete Legean ezarritako eskakizunekin. Ildo horretan, Arartekoak hainbat jarduketa egin zituen komunikazio horiek bidaltzeko.

Lanbidek jakinarazpen ugari bidali zituen 2014ko irailean, bidegabe ordaindu zirela uste zuen zenbatekoak erreklamatzeko. Arartekoak ebazpen bat¹ egin zuen jarduera hori aztertzeko; honako hauek dira ondorioak:

“Gizarte bazterketa egoeran edo horretarako arriskuan zegoen jende askorengan nahasmena eragin zuen, eta babesgabetasuna eragin ahal izan zuen 2012. Urteari zegokion zorrari buruzko aurretiko jakinarazpena bidaltzeak, Lanbideren jakinarazpenetan hutsuneak egon ziren urtea izaki, ez baitzegoen bidegabe jasotako prestazioen jatorriari buruzko informazio eskaerei zehaztasunez erantzuteko bitarteko nahikorik.”

“Bidegabe jasotako prestazio ekonomikoen jatorriari, arrazoiei eta kontzeptuei buruz xehetasunez informatzeko ahalegina egiten jarraitu behar du Lanbidek, eta kontuan hartu beharko ditu aurkezten diren arrazoibideak, zorrari buruzko jakinarazpenarekiko adostasuna erakutsi duten gorabehera. Prestazioak bidegabe jaso ez direla ondorioztatzen den kasuetan, espedientea berrikusi beharko litzateke.”

Lanbidek bere erantzun-txostenean aipatzen duen jakinarazpena izan daiteke 2014ko irailean bidali zituen milaka jakinarazpenetako bat, baina ez du birtualtasun etengarririk izan.

Auzitegi Gorenak adierazi du itzulketa-prozedura bat iraungitzat jotzeak emandako ebazpen sakona baliogabetzea dakarrela, eta, hortik, ondorioztatu daiteke etete-ondorioak izateko, ebazpen baliiodun bat jaso behar dela, Auzitegi Gorenaren 2018ko martxoaren 19ko epaiak, 2412/2015 eta 2054/2017 errek:

¹ Euskadi. Arartekoa. Arartekoaren 2015NI-2120-14 Ebazpena, 2015eko ekainaren 8koa. Horren bidez, amaitutzat jo da Lanbidek bidegabe jasotako zenbatekoak eskatzeko jarraitu duen prozedurari buruzko esku-hartzea.
Ikus: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3730_1.pdf



"el art. 42.4 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones ha de interpretarse en el sentido de que la declaración de caducidad de un procedimiento de reintegro ha de tener como lógica consecuencia la invalidez de la resolución de fondo dictada en el mismo. De modo que la Administración para poder adoptar una decisión de fondo sobre la procedencia del reintegro está obligada a iniciar un nuevo procedimiento, siempre que no haya transcurrido el plazo de prescripción fijado".

Espediente honetan jasotako dokumentazioa aztertuta, ezin da ondorioztatu zuzenbidean edo erreklamazio-prozeduran egintza baliodunik egon denik, etendura eragiten duenik.

4.-Arartekoak beste batzuetan adierazi duen bezala², preskripzioaren erakunde juridikoa segurtasun juridikoaren printzipioari lotuta dago (EKren 9.3 artikulua) eta zuzenbide-estatu baten funtsezko balioen artean dago. Segurtasun juridikoaren mesedetan, pertsonak eskubidea du bere egoera juridikoa modu eztabaidaezinean defini dadin, arrazoizko denbora-tarte batean. Prestazioak edo laguntzak ematen dituen administrazioak kontu handiz jokatu behar du aurrekontu publiko baten kargura egiten dituen datuak egiaztatzean. Epe hori lau urtekoa izango dela aurreikusi da; izan ere, ezin dira pertsonak ziurgabetasun juridikoko aldi batera eraman Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren hitzetan³, eta epe horren ondoren ezin izango da frogatu eragiketa eztabaidatuen erregulartasuna.

5.-Azkenik, Arartekoak beste ebazpen batzuetan⁴ aztertu ditu berrikusteko ahalmenaren mugak, baldin eta epe luzeegi bat igaro izanak aukera ematen badu ulertzeko ekintza preskribatu egin dela, eta, Arartekoaren ustez, administrazio onerako eskubidearen ondoriozko betebeharren aurka jokatu zela. Prestazioak

²Euskadi. Arartekoa. Arartekoaren 2020R-2341-17 Ebazpena, 2020ko maiatzaren 20koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezartzen dion ebazpena, erreklamazioaren egintza iraungi egin baita.

Ikus: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4981_1.pdf

³ Europar Batasuneko Justizia Auzitegia (Hirugarren Aretoa). Caso Cruz & Companhia Lda Instituto de Financiamento da Agricultura e Pesca IP (IFAP) erakundearen kontra. 2014ko irailaren 17ko epaia [online]. ECLI: EU:C:2014:2230.

Hemen eskuragarri: <https://eur-lex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:62013CJ0341&qid=1588922003712&from=ES>

⁴ -Euskadi. Arartekoa. Arartekoaren 2019R-2234-17 Ebazpena, 2019ko martxoaren 15koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpena. Ikus: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4697_1.pdf

-Arartekoaren 2019R-2294-17 Ebazpena, 2019ko otsailaren 28koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpen bat berrazter dezan.

Ikus: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4683_1.pdf

-Arartekoaren 2020R-2341-17 Ebazpena, 2020ko maiatzaren 20koa, aurrez aipatua.





2011ko uztailetik 2012ko martxora bitartean jaso ziren. Kexagileak hainbat dokumentu aurkeztu zituen 2012ko otsailean, 2012ko maiatzean eta 2013ko otsailean. Araudian ezartzen denaren arabera, preskripzio-epearen zenbaketa Administrazioak itzultzeko betebeharra eragin duen gertakariaren berri izaten duenetik hasi dela ulertu behar da. Lanbidek 2017ko apirilera arte ez zuen hasi prestazio horiek erreklamatzeko prozedura, eta, beraz, luzaroan gainditu du preskripzio-epea.

Administrazio onerako eskubidea Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren bidez garatu da, erkidegoa integratzeko prozesuan, eta Europar Batasunaren esparruan oinarritzkoa dela adierazi da (Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Kartako 41. artikulua; Karta Europar Batasunaren Tratatu aldutzen duen Lisboako Ituna sinatu zenetik Europar Batasunaren zuzenbidearen parte da).

Artikulu horren arabera, administrazio ona izateko eskubidearen barnean honako hau sartzen da: pertsona orok bere gaia inpartzialtasunez, bidezko moduan eta arrazoizko epean tratatzeko eskubidea. Eskubide hori Europar Batasunaren eremura mugatuta dago, baina Europar Batasuneko estatuen ordenamenduetan txertatzen ari da, eta Espainian kontuan hartu da ebazpen judizialen batean, Auzitegi Gorenaren 2015eko azaroaren 20ko epaian gertatu den bezala (errek. 1203/2014).

Eskubide horrek administrazio publikoen funtzionamenduaren eraginkortasuna hobetzeari eragiten dionez, eta, bereziki, gizarte demokratikoetan pertsonen eskubideak kudeatzen dituzten zerbitzu publikoetan, Europako Kontseiluak estatu kideei zuzendutako gomendio bat egin du (Recommendation cm/Rec (2007) 7 of the Committee of Ministers to member states on good administration⁵). Gomendio horretan, printzipio eta estandar jakin batzuk proposatzen ditu, besteak beste, proportzionaltasunarena edo jarduketa arrazoizko epe batean egitea, edo gardentasunarena.

Laburbilduz, Arartekoaren iritziz, erreklamaturako zorrak ez du sostengu juridiko egokirik, eta erreklamazioa preskripzio-epea igaro zenean egin zen; beraz, itzulketa-ekintzaren preskripzioa deklaratu behar zen.

⁵ Recommendation CM/Rec(2007)7 of the Committee of Ministers to member states on good administration. Hemen eskuragarri: <https://rm.coe.int/16807096b9>



Herritarren eskubideak defendatzeko erakunde honi estatutuz esleitutako zeregina betetzeko, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera eta orain arte azaldutakoa oinarri hartuta, Arartekoak honako gomendio hau egin nahi dio Lan eta Enplegu Sailari

GOMENDIOA

Berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren kontzeptuan 4.946,70 euroko zenbateko bat itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpena, eta erabaki dezala zorra konpentsatzeko deskontatutako zenbatekoak itzultzea, prestazioak erreklamatzeko prozedura erreklamazio-ekintzaren preskripzio-epearen ondoren hasi delako.

